



## UDAL ERABAKIAREN JAKINARAZPENA

Behin-behineko alkateak 2022ko abuztuaren 25ean emandako Dekretu baten bitartez ondorengo erabakia hartu duela jakinarazten da:

“2022ko ekainaren 23an emandako dekretu baten bitartez Bergarako Udaleko alkateak erabaki zuen Kale-garbiketako Zerbitzuko peoi espezialisten lan-poltsa osatzeko deialdia egitea eta oinarriak onartzea (Esp.: 2022LAAU0012).

Eskabideak aurkezteko epea amaituta eta aurkeztutako eskaerak eta dokumentazioa azterturik, 2022ko uztailaren 28an emandako Dekretu baten bitartez onartu ziren, besteak beste, onartutako eta baztertutako izangaien zerrendak eta Bergarako udaleko web orrian argitaratu ziren.

2022ko abuztuaren 5ean emandako Dekretu baten bitartez eta ikusita kale-garbiketako peoi espezialisten plaza batzuek ez dutela gida-baimenik eskatzen eta kale-garbiketako peoi espezialisten lanpostu batzuek 1. Hizkuntza Eskakizuna derrigorrezkoa dutela eta beste batzuek ez Udalaren Lanpostuen Zerrendaren arabera, erabaki zen honako hiru lanpoltsa hauek osatzea, hautaketa-prozesuak aurreikusitako oposizioaldi berdina erabilita:

- 1.- 1. Hizkuntza Eskakizuna eta B gida-baimena biak derrigorrezkoak dituztenen lan-poltsa.
- 2.- 1. Hizkuntza Eskakizuna ez-derrigorrezkoa izanda, B gida-baimena derrigorrezkoa dutenen lan-poltsa.
- 3.- 1. Hizkuntza Eskakizuna ez-derrigorrezkoa eta B gida-baimenaren eskakizunik ez dutenen lan-poltsa.

Eta ondorioz, deialdia arautzen duten oinarrietan egokitzapenak egitea, eta lan-poltsak osatzeko deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko 2022ko irailaren 12ra arteko epe berri bat ematea.

Akatsez ez zen baliogabetu 2022ko uztailaren 28an emandako Dekretuaren bitartez onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda eta ezta ere ez zen eman jadanik instantzia aurkeztu duten izangaiei beste dokumenturen bat aurkeztu nahi badute, aurkezteko aukera.

Beraz,

### ERABAKI DUT:

2022ko abuztuaren 5ean emandako Dekretua osatzea honako bi puntu hauek gehituta:

***HIRUGARRENA:*** 2022ko uztailaren 28an emandako Dekretuaren bitartez onartutako izangai onartuen eta baztertuen zerrenda baliogabetzea. Instantziak aurkezteko epe berria bukatzen denean argitaratuko da behin-behineko zerrenda osatua eta emango da epea erreklamazioetarako.

*LAUGARRENA: Jadanik instantzia aurkeztuta duten izangaiei adieraztea aurkeztutako instantziari dokumenturen bat gehitu nahi badiote, 2022ko irailaren 12ra arteko epean aurkeztu ahal izango dutela.”*

#### Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau udaleko web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpen hau udaleko web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar daiteke.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2022ko abuztuaren 25a  
IDAZKARIA



## NOTIFICACIÓN DE RESOLUCION MUNICIPAL

Se comunica que el Alcalde Accidental ha emitido el 25 de agosto de 2022 el siguiente Decreto:

“Mediante Decreto de Alcaldía emitido el 23 de junio de 2022, se resolvió realizar la convocatoria y aprobar las bases para la creación de una bolsa de trabajo de peones especialistas del Servicio de Limpieza Viaria del Ayuntamiento de Bergara (Expte. 2022LAAU0012).

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes y analizadas las solicitudes y documentación presentada, se aprobaron mediante Decreto de 28 de julio de 2022, entre otras, las listas de admitidos y excluidos y se publicaron en la web del Ayuntamiento de Bergara.

Por Decreto de 5 de agosto de 2022, y a la vista de que, de acuerdo con la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento, algunas plazas de peón especialista en limpieza viaria no requieren permiso de conducción y que algunas plazas de peón especialista en limpieza viaria tienen perfil lingüístico 1 preceptivo y otras no, se resolvió constituir las tres bolsas de trabajo siguientes, utilizando la misma fase de oposición que está contemplada en el proceso selectivo:

- 1.- Bolsa de trabajo de quienes tengan el Perfil Lingüístico 1 y el permiso de conducir B, ambos preceptivos.
- 2.- Bolsa de trabajo de personas con Perfil Lingüístico 1 no preceptivo con permiso de conducir B preceptivo.
- 3.- Bolsa de trabajo con Perfil Lingüístico 1 no preceptivo y con permiso de conducir B no preceptivo.

Y, en consecuencia, realizar adaptaciones en las bases reguladoras de la convocatoria para la constitución de bolsas de trabajo, concediendo un nuevo plazo hasta el 12 de septiembre de 2022 para la presentación de solicitudes.

Por error no se recogió en dicho Decreto que quedaba anulada la relación de aspirantes admitidos y excluidos aprobada mediante Decreto de 28 de julio de 2022, ni tampoco se dio la posibilidad, si lo estimaren oportuno, de aportar cualquier otro documento a los aspirantes que ya habían presentado instancia en este nuevo plazo.

Por lo tanto,

### **HE RESUELTO:**

Completar el Decreto de Alcaldía emitido el 5 de agosto de 2022 añadiendo estos dos puntos:

*TERCERO: Anular la lista provisional de aspirantes admitidos y excluidos aprobada por Decreto de 28 de julio de 2022. La lista provisional de admitidos y excluidos completa se publicará al finalizar el plazo ampliado de presentación de solicitudes y se otorgará un plazo para la presentación de reclamaciones.*

*CUARTO: Comunicar a los aspirantes que ya tengan la solicitud presentada que, si desean adjuntar algún documento a la misma, podrán hacerlo hasta el 12 de septiembre de 2022.*

Recursos contra la resolución:

Contra la resolución que se le notifica, y que es definitiva en vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta resolución en la página web del Ayuntamiento de Bergara.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución que se notifica se podrá interponer RECURSO DE REPOSICIÓN ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta resolución en la página web del Ayuntamiento de Bergara.

Todo ello sin perjuicio de que se pueda interponer cualquier otro recurso que se estime procedente.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS: Todo ello conforme a lo dispuesto en los artículos 114.c, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa según redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre y el art. 46 de la misma Ley así como el artículo 5 del Código Civil.

Bergara, 25 de agosto de 2022  
LA SECRETARIA